

DOCENTIAZ PROGRAMA

UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 7. deialdia

Irakaslan Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari DOCENTIAZ programari buruzko inkestan oinarritutako txostena

2017eko azaroa



AURKIBIDEA

	Orria
1. Sarrera	4
2. Emaizen azterketa	5



SARRERA

DOCENTIAZ UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa hezitzailea da.

Fase experimental honetan, DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko zazpigarren deialdia 2017ko otsailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2017ko azaroan amaitu da.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik ateratako emaitzak ikus daitezke. Galdera-sorta, 2017ko uztailean, telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.



ERANTZUNEN ANALISIA

Galdetegiak likert mota neurriaren eskala galdera dikotomiko, kategorizatu, edo irekiekin nahasten du. **DOCENTIAZ** programaren garapenari buruzko 26 galdera ditu, horietako 13 atal irekiak izanik, hortaz, pisa kualitatiboa oso nabarmena da galdetegian.


IEUBko 39 kideei egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 26k erantzun zuten; baina, 21k amaiatu zuten inkesta.

Jasotako galdetegien bidez bildutako informazioa, txosten honetara, eramateko edukia bi zati ezberdinetan banatu da: lehenik, bai galdera bai erantzun motagatik informazioaren transmisioa era grafiko eta kuantitatiboan posible egiten duten ítem haiek; jarraian, batera eta kualitatiboki, biltzen da jasotako iritzien adierazgarritzat hartu den informazioa, errepikatzeagatik nahiz haren edukiagatik




1. itema.- Mesedez aukeratu zure jakintza arloa:

Artea eta giza zientziak	3	%12
Zientziak	4	%15
Osasun zientziak	2	%8
Gizarte eta lege zientziak	7	%27
Ingeniaritza eta Arkitektura	10	%38
Jasotako erantzunak	26	%100




3. itema.- DOCENTIAZ programan dimentsioen pisua ondo banatuta dago.



Azterketa teknikoa		Ondorioak	
Batez bestekoa	4	"%82k" aukeratu zituen:	
Konfiantza tarte (95%)	[4 - 5]	Erabat ados nago	
Laginaren tamaina	22	Nahikoa ados nago	
Desbiderapen tipikoa	1	2 aukera hautetsi gabe geratu ziren	
Errore estandarra	0		



5. itema.- Irakaslanaren berri emateko zehaztu diren iritzi iturri hauek egokiak dira.



Azterketa teknikoa - Populazioa: 21


Irakasleak		Ondorioak
Batez bestekoa	4	"%81k" aukeratu zituen: Nahikoa ados nago Erabat ados nago Ez nago batere ados aukeratu zuenik ez dago
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 4]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

Ikastegiko Kalitate Batzordeak		Ondorioak
Batez bestekoa	3	"%67k" aukeratu zituen: Nahikoa ados nago Gutxi gorabehera ados nago Gutxien aukeratutako erantzuna "%10": Ez nago batere ados
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	

Ikasleak (iritziari buruzko inkestaren bidez)		Ondorioak
Batez bestekoa	4	"%71k" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahikoa ados nago Ez nago batere ados aukeratu zuenik ez dago
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 5]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	




6. itema.- Beste informazio-iturriren baten sartzea hartzen duzu beharrezkotzat:



Azterketa teknika		Ondorioak
Batez bestekoa	2	Gehien aukeratutako erantzuna "Ez". Gutxien aukeratutako erantzuna "Bai".
Konfiantza tartea (% 95)	[2 - 2]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	


8. itema.- Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan:



Azterketa teknika		Ondorioak
Batez bestekoa	4	"%95ek" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahikoa ados nago 2 aukera hautetsi gabe geratu ziren
Konfiantza tartea (% 95)	[4 - 5]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	




11. itema.- Protokoloa behar adina zehaztuta dago:



Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batez bestekoa	5	"95ek" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahikoa ados nago 2 aukera hautetsi gabe geratu ziren
Konfiantza tarte (95%)	[4 - 5]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	


13. itema.- Parekoen balioespenak ebaluazioaren ekitatea bermatzen du:



Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batez bestekoa	5	"100ek" aukeratu zituen: Erabat ados nago Nahikoa ados nago 3 aukera hautetsi gabe geratu ziren
Konfiantza tarte (95%)	[5 - 5]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	



15. ítema.- Lortu nahi den bezala, **DOCENTIAZ** programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta.



Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batez bestekoa	4	"90ek" aukeratu zituzten: Gutxi gorabehera ados nago Nahikoa ados nago 2 aukera hautetsi gabe geratu ziren
Konfiantza tartea (% 95)	[3 - 4]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1	
Errore estandarra	0	


17. ítema.- Azaldu zein izan den erabilitako denbora, batez beste, espedienteak ebaluatzerakoan (ordutan neurtuta):

- 1 ordu (1)
- 1 ordu eta erdi (2)
- 2 ordu (8)
- 2 ordu eta erdi (2)
- 3 ordu (3)
- 5 ordu baino gehiago (5)

Batez bestekoa: 2 ordu eta erdi.




18 itema.- 0 Dimentsioa aldatuko nuke:



Azterketa teknikoak		Ondorioak
Batez bestekoa	2	Gehien aukeratutako erantzuna "Ez"
Konfiantza tartea (% 95)	[2 - 2]	
Laginaren tamaina	21	Gutxien aukeratutako erantzuna "Bai".
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	


20 itema.- 1 Dimentsioa aldatuko nuke:



Azterketa teknikoak		Ondorioak
Batez bestekoa	2	Gehien aukeratutako erantzuna "Ez".
Konfiantza tartea (% 95)	[2 - 2]	
Laginaren tamaina	21	Gutxien aukeratutako erantzuna "Bai".
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	




22. itema.- 2 Dimentsioa aldatuko nuke:



Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batez bestekoa	2	Gehien aukeratutako erantzuna "Ez". Gutxien aukeratutako erantzuna "Bai".
Konfiantza tartea (% 95)	[2 - 2]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	

24. itema.- 3 Dimentsioa aldatuko nuke:



Azterketa teknikoa		Ondorioak
Batez bestekoa	2	Gehien aukeratutako erantzuna "Ez". Gutxien aukeratutako erantzuna "Bai".
Konfiantza tartea (% 95)	[1 - 2]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0	
Errore estandarra	0	



Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitateko Batzordeak 7. Deialdiaren Docentiaz programari egindako hausnarketen eta hobekuntzen proposamen laburpena batzen dira.

2. itema.- Azal ezazu DOCENTIAZ programatik ken ahal den adierazle bat. Mesedez, argudiatu zure erantzuna:

- 0. Dimensioa Irakaskuntza Enkargua dagoen legediaren arabera bideratzen da, hortaz, puntuazioa batekoaren gainetik gehitzea ez da onargarria.
- 28. Itema ebaluatzea zaila da: gaitasunen arteko koherentzia, metodologiak, ekintzak eta ebaluazioa. Ez da batere erraza gidara eramatea.
- Guztiak erabilgarriak dira, baina baten bat kentzekotan, lehena kenduko nuke. Ikasleek traba handirik gabe ikaslearen identifikazio datuak aurki ditzakete, hortaz, irakasleak datu horiek gidan ez jartzearen zioa oso eskuragarriak direla pentsatzea da
- Badago erredundantzia apur bat 14. , 16. eta 19., 24. Adierazleen artean. Erraztea litekeena da.
- Ez nuke ezar kenduko. Nire iritziz, kentzearen ordez 1,1. eta 1,2 adierazleak epigrafe batean batzea hobe izango litzateke.

4. itema.- Azal ezazu egin litekeen aldaketa bat (Dimentsioen pisua ondo banatuta dago DOCENTIAZ programan):

- 1. Dimentsioak 50 puntu balio du; maiz, gida deialdiari moldatuta dagoela ikusten da.
- Ona izango litzateke faktore zuzentzailea aldatzea ebaluazio baxua daukaten espedienteetan ondorioa dela kausa.
- Kudeaketan irakaslearen inplikazioa ez dago bere borondatearen mendean soilik, egiteko aukeran badaude beste faktore batzuk eragina daukatenak.
- 3.2. atala Zuzendutako edo gainbegiratutako lan eta akademikoak, irakaslanaren atal oso garrantzitsua da, esfortzu handia eskatzen duena, eta, azkenik, Docentiaz programan ez dago hain baloratua, zapuzten delako.

7. itema.- Arrazoituz zure erantzuna, mesedez (Beste informazio-iturriren baten sartzea hartzen duzu beharrezkotzat?):



- Irakaslan kalitatearen jarduera osoz eta eraginkor moduan ebaluatu ahalko da aurrez aurreko ebaluazioa egiten denean.

9. itema.- Adierazi alderdi negatibo bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Batzuetan, motela da.

10. itema.- Adierazi hobekuntza bat (Aplikazio informatikoa lagungarri izan da ebaluatzerakoan):

- Konexioaren arintasuna hobetzea.

12. itema.- Adierazi protokoloan aurkitu duzun hutsune bat:

- Adierazle batzuetan ez daude ondo zehaztuta ebaluatzeako irizpideak; esate baterako, 7. eta 8. adierazleak.
- Adierazle batzuk ez daude ondo deskribatuta, eta zaila da puntuatzea Otik 2ra.

14. itema.- Mesedez, argudiatu zure erantzuna (Parekoen balioespenak ebaluazioaren ekitatea bermatzen du):

Ia guztiek pentsatzen dute parekoen balioespena beharrezkoa dela eta onurak dakartzela. Erantzun batzuk:

- Hutsegiteak zuzentzen laguntzen da; eta iritziak elkarri adierazteak ebaluazio orekatuagoa lortzen laguntzen da. Ebaluatzaileek beren joera dute; hortaz, bikoteka beharrezkoa da ebaluazioa egitea.
- Ebaluazioaren oinarria da eta sendotasuna eta onarpena ematen dio.
- Pikotekaren orrazketa prozesua puntu kontraesankorak eztabaidatzera behartzen da baita ebaluatzaile bakoitza ebaluazioan zorrotzagoa izatea behartzen du ere.
- Ebaluatzaile batzuen ebaluazioa egiaztatzeak prozesuaren kalitatea bermatzen du.
- Ez dut ezagutzen sistematik onena.
- Balorazioa ekitatibagoa lortzen da eta gogoeta sakonagoa da.
- Ebaluazioaren objektibitatea bermatzen da.
- Akatsak saihestu eta iritziaren desberdintasunak aztertzen utzi ditu.

16. itema.- Adierazi zer neurri litekeen lagungarri, bereizgarritasun hori lortzeko, irakaskuntza kalitateari erreparatuta (ortu nahi den bezala, DOCENTIAZ



programak irakasleak bereizten ditu haien irakaskuntza kalitatea kontuan hartuta):

- Irakaskuntzaren kalitatea parametro oso sinpleen bidez neur daiteke. (1) Irakaskuntza enkargua eta konplexutasuna. (2) Ikasleen iritzia, pertsona helduak dira eta oso ondo bereizten dute norik egiten duen lan ona. (3) Zuzendutako lanak, horrek ere adierazten du zein irakasleengana jotzen diren ikaleak beren lanak bideratzeko. (4) Irakaskuntza kudeatzeko inplikazioa (kargu akademikoak,...), irakasleen esku hori ez badago ere. (5) 1. Dimentsioa papera baino ez da, ikuslegoari galdetu behar zaie materiala ona den, haiek oso ondo dakitelako.
 - Ikaslearen gidaren egokitzapen ex post ebaluatzeko programan eskatzen dena antzematen da. Ebaluazioa aurrez aurreko eskoletara ebaluatzaileen asistentziaz betetzea, eskoletan beste irakasle batzuen sarrera ohiko bihurtuz. Horrela, irakaskuntza praktikaren errealitatera hurbilketa jasoko litzateke eta ez dokumentazio administratiboaren kalitatera.
 - Bikaina izateko, 1. Dimentsioan oinarritzko puntuaketa lortzea beharrezkoa izango litzateke, faktore zuzentzailea alde batera utzirik.
 - Osagarri ekonomikoa lotzeak beste erkidego batzuetan egiten den bezala, berezitasuna lortzera laguntzen du. Ekitaldi akademiko batzuetan (epaiketan, besteak beste) parte hartzeko ebaluazio positiboa eskatzeak laguntzen du ere.

19. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat (0 Dimentsioa aldatuko nuke):

Erantzun gehienak "Faktore zuzentzaile" aren ezabapenari edo aldaketari buruzkoak dira.

- Faktore zuzentzailea oinarritzko emaitzatik aurrera aplikatu behar da. Espediente ez onargarria batzuek gaintitzea lortzen dute atalaseari esker, eta beste espediente ahul batzuk faktore zuzentzaileari esker igotzen dira mailatik. Atasalaren aplikazioak ahultzen du irakaslearen egiazko kalitatea.

21. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat (1 Dimentsioa aldatuko nuke):

- Pisu gutxiago ematea, ikasleen iritziari pisu handiago ematea.
- Aurrez aurreko ebaluazioa Ikaslearen gida nola aplikatzen den ikuste aldera.



- Protokoloa bestelako irakasgai praktikoetara moldatzea: laborategi praktikak, ordenagailu praktikak, ez laborategia ez ordenagailuaren erabilera ez daukaten irakasgaiak; esate baterako, bestelako moduan aritu beharko litzateke.

23. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat (2 Dimentsioa aldatuko nuke):

- Irakaslearen parekoen ikuspuntua erantsi behar da. Haren lankideena.
- Ikasleen iritzia puntuazio handiago eduki beharko litzateke.
- Komenigarria izango litzateke lehenengo irakasgaiak/taldeak, bigarren irakagaiak/taldeak desberdintzea, edo orokorrean, graduko derrigorrezkoak, hautazkoak eta masterrekoak, iritzi inkestetan eta arrakasta tasetan emaitza onak lortzea askoz zailagoa baita.

25. itema.- Azaldu proposatuko zenukeen aldaketa bat (3 Dimentsioa aldatuko nuke):

- Dimentsio honetan irakaskuntzarekin lotutako ikerkuntza kentzea, baita kudeaketa ere, zeren beren berariazko deialdiak baitaizkaten.
- Pisu handiago ematea GRAL, MAL eta zuzendutako tesiak.
- 3.2. puntuari pisu handiago emango nioke. Kenduko nuke 3.3.2. puntua (halako formazio mota irakasteko aukera duten irakasleak gutxi direla uste dut). Hedapenaren atalean, adibidez, meritu gehigarritzat hartuko nuke.
- 3.4.2. dimentsioan kanpoko ebaluazioa kalitate adierazle bihurtzea (Goi hezkuntzan irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak).

26. itema.- . DOCENTIAZ programa hobetu nahian, gomendagarri litzateke honakoez gogoeta egitea:

- Irakaslearen aurrez aurreko ebaluazioa, ebaluazio mota hori normalizatzea saiatuz berezko esperientzia partekatze prozesua eta hobetzeko aukera izanik.
- Aplikazioan, automatikoki, aipatutako argitalpen ugari ez daude sartuta irakaskuntzaren arloan. Garrantzi eta pisu handiago eman behar zaio ikasleen iritziari, batez ere inkestaren 25. itemari. Aurreko deialdian lortutako emaitzari garrantzia ere eman behar da.
- Bikaintasuna lortzeko baldintzak.